

Prentsarako txostena



Aurki ikusgai: otsailak 11

Fauvismotik surrealismora Parisko Musée d'Art Moderneko maisulanak

Babeslea:

Fundación
BBVA

MAM MUSÉE
D'ART MODERNE
DE PARIS

PARIS
MUSEE

BBVA Fundazioa BBVA taldeak komunitatearekiko duen konpromisoaren erakusgarri da, baita aro berri honetako aukerak guztien eskura jartzeko egiten duen ahaleginaren erakusgai ere. Xede horretarako, ezagutza zientifiko eta sorkuntza artistiko bikaina sortzea eta sustatzea ditu bere jardueraren ardatz, eta hori guztia gizartean zabaltzea. Hasiera-hasieratik izan du helburu hori BBVAK, duela 165 urte jaio zenetik, eta horrek Bilboren eta inguruaren garapenaren eragileetako bat izatera eraman du; erakundeak konponbide berritzaileak bilatzen ditu unean uneko erronkei aurre egiteko eta, horri esker, 25 herrialde baino gehiagotan dago gaur egun.

Nortasun-zantzu hori nabarmena da euskal gizarte zibilean eta erakundeetan eta, horren harira, 2019an, BBVA Fundazioaren Patronatuak Ezagutzaren Mugak sarien egoitza iraunkor izendatu zuen Bilbo. Nazioarteko sari horiek XX. eta XXI. mendeetako ezagutzaren mapan egindako ekarpen eraldatzaileei ematen zaizkie, eta hiria mundura zabaltzeko beste faktore bat bihurtzen ari dira. Sari horiek Guggenheim Bilbao Museoaren bidez izan zuten lehen harremana hiriarekin, BBVA Fundazioa Museoaren Babesle Estrategikoa baita hura sortu zenetik; hots, 1997tik.

Erakunde bien arteko elkarlan horretan, erakusketa garrantzitsuak egin ditugu urtero. Erakusketa horiek, batetik, iragana ulertzen laguntzen digute, orainean izateko eta egoteko dugun moduari buruzko ikuspegi kritikoa ematen digute, eta etorkizuneko erronkak argitzen laguntzen digute. Bestetik, nazioarteko kultura-agendan kokatzen dute Bilbo, erakargune ahaltsu bihurtzen dute, eta horrek *Guggenheim efektua* izenaz ezagutzen dena ekarri du: eragin onuragarri, zabal eta askotarikoa ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen alorretan.

Ohore handia da guretzat Museoaren 25. urteurrena ospatzeko *Fauvismotik surrealismora: Parisko Musée d'Art Moderneko maisulanak* erakusketarekin bat egin ahal izatea. Bertan bildutako piezak funtsezkoak dira ulertzeko nola modelatu duen arteak gure kultura XX. mendearen hasieratik Bigarren Mundu Gerraren ondorengo aldiraino. Fauvismoak eta kubismoak beren gain hartu zituzten ausardiak eta askatasunak goitik behera antzaldatu zuten irudikapen artistikoa, eta nabarmen aldatu paisaiaren, figurazioaren eta natura hilaren pertzepzio tradizionala. Halako gar artistikoa piztu zuten, ezen gerra arteko aldian mundu osoko artistak erakarri baitzituzten Parisera, eta haiek gaur egun Parisko Eskola izenez ezagutzen dugun mugimendua sortu zuten. Hirian bertan sortu zen, halaber, surrealismoa, eta hari eskainita dago erakustaldiaren hirugarren atala.

Erakusketak hainbat alderdi aurkezten dizkigu: Louis Valtatek bere paisaietan egiten zuen joko kromatiko bizia; Robert Delaunayk biluzietan egiten zuen kolorearen erabilera eraldatzailea; André Lhoteren kubismo klasizista; Amedeo Modiglianiren paleta sailkaezina; Francis Picabiaren moldagarritasun harrigarria; edo Giorgio de Chiricoren arte metafisikoa. Horra hor ibilbide zirrargarri honetako mugarrien zenbait adibide. Erakustaldiaren komisarioak Parisko Musée d'Art Moderneko zuzendari Fabrice Hergott eta arte-arduradun Hélène Leroy izan dira, baita Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduradun Geaninne Gutiérrez-Guimarães ere.

Zorionak, beraz, haiei, eta baita Juan Ignacio Vidarteri eta haren lantalde osoari ere, ezin hobeki bideratu baitute Guggenheim Bilbao Museoa mende-laurden honetan, nazioarteko erreferente bihurtzeraino. Ez da harritzekoa, hortaz, Museoak milioika bisitari jaso izana urte hauetan guztietan, eta haietatik % 70 atzerrikoak izatea. Ibilbide sendo hori da, hain zuzen, etorkizunari aurre egiteko bermerik onena.

*Fauvismotik surrealismora:
Parisko Musée d'Art Moderneko maisulanak*

- Datak: 2022ko otsailaren 11tik maiatzaren 22ra
 - Komisarioak: Fabrice Hergot (Parisko Musée d'Art Moderne-ko Zuzendaria) Hélène Leroy (Parisko Musée d'Art Moderne-ko Arte Arduraduna)-rekin elkarlanean eta Geaninne Gutiérrez-Guimarães (Guggenheim Bilbao Museoko Arte Arduraduna)
 - Guggenheim Bilbao Museoa eta Parisko Musée d'Art Moderne, Paris Musées-ek antolatutako erakusketa
 - Babeslea: BBVA Fundazioa
-
- XX. mendeko lehenengo hamarkadan fauvismoa eta kubismoa sortu zirenean mugimendu haietako artistek erakutsi zuten askatasun-adierazpen ausartak goitik behera aldatu zuen erretratuak, paisaiak eta natura hilak irudikatzeko modu tradizionala. Askatasun hori eskandalagarri suertatu zen.
 - "Paris elkargune" izeneko aretoak gerra arteko urteetan Parisko arte-eszena berria lorarazten aktiboki jardun zuten margolari eta eskultore figuratiboak biltzen ditu.
 - Askatasuna ez ezik, irrazionala eta iraultzailea zen oro ere sustatzen zuen surrealismoak. Sorkuntza artistikoaren esparru guztietan izan zuen eragina, eta prozedura tekniko eta artistiko berritzaileak ekarri zituen.

Parisko Musée d'Art Moderne (MAM) eta Guggenheim Bilbao museoek *Fauvismotik surrealismora: Parisko Musée d'Art Moderneko maisulanak* dakarte, BBVA Fundazioak babestutako erakusketa bat. Funtsezko hainbat artistaren 70 maisulan inguruko aukeraketa bat da, eta MAMen bildumaren historia irudikatzen du XX. mendeko hastapenetan Parisen sorturiko abangoardia-mugimenduen ikuspegi panoramikoa eskaintzeko xedearekin.

MAM museoa 1937ko *Exposition internationale* historikoaren haritik eraiki zen, Paris hiriak zituen arte moderno eta garaikideko funtsak biltzeko. Funts horiek handituz joan ziren hurrengo urteetan, Parisko arte-eszenako artista ospetsuenen lanak erosi baitzituzten. Hala ere, 1961era arte MAM ez zen museo bilakatu. Mezenasek funtsezko papera jokatu zuten proiektuaren garapenean, Maurice Girardin doktoreak bereziki; izan ere, azken horrek 1953an museoari egin zion dohaintza bilakatu zen artista fauvista eta kubisten lanak, bai eta Parisko Eskolaren ordezkariak batzen dituen maisu modernoaren bildumaren muina bilakatu zen.

Kronologikoki antolatua XX. mendearen hasieratik Bigarren Mundu Gerra osterako arteko epea barne hartzen duten hiru ataletan, erakusketa honek garai hartako funtsezko arte-mugimenduetako protagonista

entzutetsuenen ikuspegi historikoa eskaintzen du. Hasteko, fauvisismo eta kubismo zenbait lan adierazgarri aurkezten ditu. Lan haien balentriak eta askatasunak artea goitik behera eraldatu zuten, eta paisaiaren, giza figuraren eta natura hilaren ohiko pertzepzioa aldatu zuten. Ondoren, Parisko arte-eszena biziak erakarrita munduko txoko guztietatik Frantziako hiriburura bildutako sortzaileen belaunaldi baten obra dakarkigu erakusketak; artista horiek “Parisko Eskola” sortu zuten gerra arteko urteetan garaiko zenbait artista frantses ezagunekin batera. Eta, amaitzeko, surrealismoari loturiko sortzaileen lanak jartzen ditu ikusgai; mugimendu hori Parisen sortu zen —huraxe izan zuen hiriburu historikoa—, eta André Breton poeta izan zuen buru hasiera-hasieratik.

Gaurdaino, MAM museoak bilduma zabaltzeko eta ezagutarazteko erabili duen irizpideak abangoardia historikoetako mugimenduen lan-multzo adierazgarriak lortzea xede duen politika zientifiko eta kultural bat du ardatz. Erakusketa honetako lan asko eta asko lehen aldiz daude ikusgai Bilbon.

ERAKUSKETAREN AURKEZPENA

305. aretoa. *Fauvismoa eta kubismoa: eskandalagarriki modernoak*

Fauvismoa eta kubismoa Parisen jaio ziren XX. mendeko lehen hamarkadan. Artearen historiaren benetako mugarri bilakatu aurretik, kritikariek hitz gaiztoak erabili zituzten mugimendu haien inguruan aritzeko, Parisko arte-azoketan aurkezten ziren aurkikuntza plastiko berriak gutxiesteko asmoz. Fauvistek pintura-adierazpide berri bat garatu zuten natural itxurarik ez zuten kolore biziak erabiliz, eta pintzel-ukitu espontaneoak baliatzen zituzten. Kubisten asmoa, aldiz, objektuak eta figurak aldi berean ikuspegi ezberdinetatik irudikatzea zen. Ausardia hori eskandalagarri suertatu zen, goitik behera aldatzen baitzuen erretratuak, paisaiak eta natura hilak irudikatzeko modu tradizionala.

1905eko Parisko Udazken Azokan Henri Matisseren eta André Derainen lana ikusi ostean, Louis Vauxcelles arte-kritikariak margolari horiek “fauves” (piztiak) zirela idatzi zuen, artearen arauak bortizki urratu zituztela adierazi nahian. Fauvismoak inpresionismotik eta puntillismotik hartu zuen formak koloretan desgaitzeko joera, eta oso kolore biziak erabiltzen zituen. Emozioak adierazteko prozedura formal berrien bila, artista horiek kolorearen espresio-potentziala nabarmendu nahi izan zuten, eta tratamendu erabat berritzailea eman zieten beren lanetako gaiei. Derain, Robert Delaunay, Matisse, Maurice de Vlaminck eta Louis Valtat izan ziren, besteak beste, mugimendu horretakoak, eta haien obra garrantzitsuak daude ikusgai atal honetan.

Kubismoa XX. mende hasieran jaio zen, garaiko margolari gazteek hainbeste miresten zuten Paul Cézanne artistaren margolanetatik abiatuta Pablo Picassok eta Georges Braquek egin zuten analisisian oinarrituta. Hasieran, kritikariek gaitzetsi egin zuten aitzindari haien estiloa, margolan haiek “kuboxka” hutsez osatuta zeudelakoan. Kubismoari lotutako beste artista batzuek konposizio zatikatuak sortu zituzten, baita errealtatearen ikuspegi ezberdinak bateratuta irudikatzen zituzten eskulturak ere, eta, era horretara, hankaz gora jarri zituzten Errenazimentuaz geroztik jarraitutako perspektiba-arauak. Mugimendu horretakoak izan

ziren, besteren artean, atal honetan jasotako Braque, Albert Gleizes, Natalia Goncharova, Juan Gris, Fernand Léger, André Lhote, Jean Metzinger eta Picasso.

306. aretoa. *Paris elkargune*

Atal honek gerra arteko urteetan Parisko arte-eszena berria lorarazten aktiboki jardun zuten margolari eta eskultore figuratiboak biltzen ditu. Hemen jasotako lanek azpimarratu egiten dute zer-nolako garrantzia izan zuten Frantziako hiriburura bizitzera joan eta Henri Matisse, Suzanne Valadon, Marie Laurencin eta beste margolari frantses ospetsu batzuekin batera Parisko Eskola sortu zuten artista atzerritarrek.

Parisko Eskola izena André Warnod kritikariak asmatu zuen 1925. urtean, eta hitz horrek ez du berez mugimendu artistiko bat izendatzen, baizik eta Parisko auzo jakin batzuetan garatu zen eszena artistikoaren bizitasunak XX. mendearen hasieratik erakarri zituen jatorri ezberdinetako artisten belaunaldi bat. 1900aren eta Lehen Mundu Gerraren artean, Montmartre auzoa izan zen abangoardiako figuren sorlekua; ondoren, 1920ko eta 1930eko hamarkadetan, Montparnasse bihurtu zen *bohème* artistikoaren epizentro berria; eta Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren, aldiz, Saint-Germain-des-Prés izan zen sorkuntzaren erdigunea.

Hiru barrutiotako kafetegiak, tailerrak, dantza-aretoak eta kabaretak garaiko komunitate artistiko kosmopolitaren topagune bilakatu ziren, eta bizitza sozial handia biltzen zuten. Artista atzerritarrek sarritan joaten ziren elkargune haietara; besteak beste, areto honetan jasota dauden Marc Chagall, Chana Orloff, Chaim Soutine eta Ossip Zadkine errusiarrek; Jules Pascin bulgariarra; Amedeo Modigliani italiarra; María Blanchard espainiarra; Kees van Dongen herbeheretarra; eta Léonard Foujita japoniarra.

307. aretoa. Surrealismoaren bilakaerak

Surrealismoa Parisen jaio zen 1920ko hamarkadan, Guillaume Apollinaire, André Breton, Louis Aragon, Philippe Soupault eta Paul Eluard poeten idazkietatik abiatuta. Arte- eta literatura-mugimendu hori gerra osteko garaian sortu zen, ordenaren eta arrazoiaren balioekin akabatzeko nahiak eta mundua berriz liluratzeko beharrak bultzatuta. Taldeko teorialaria zen heinean, Bretonek estetika berritzaile baten oinarriak ezarri zituen, zeinak iturri berrietatik edaten baitzuen, hala nola Freuden teoriak eta psikoanalisi, mitoak eta sinboloak, inkontzientea, ametsak eta haien adierazpenak, miresgarria den guztiarekiko grina, eta zoria eta igarpena.

Korrante hori artegintzaren eremu guztietara hedatu zen, eta teknika- eta arte-kontzepzio berritzaileak ekarri zituen berekin. Man Ray, Breton, Max Ernst eta beste artista batzuek errealitatearen eta haren antzaldaketen arteko joko emankorrak gauzatu zituzten. Obra surrealisten bidea ematen dute nahasketak eta gainjartzeak egiteko, Víctor Brauner eta Francis Picabia artisten lanek agerian uzten duten gisan. Esoterismoaren eta sinbolismoaren arteko gai berriak ere agertu ziren eta, haien bidez, zenbait artista androginiari eta genero-aldagarritasunari buruzko nozioekin esperimentatzen aritu ziren; esaterako, Claude Cahun, Prinner eta Brauner.

Irrazionala eta iraultzailea den oro sustatzen du surrealismoak, gogoaren askatzea. Mugimendu horri loturiko ideiak zenbait hamarkadaz garatu ziren, eta nazioarteko truke-sareen bitartez zabaldu, barneratu

eta berrasmatu egin ziren. Wifredo Lam, Vera Pagava, Leonor Fini eta beste artista batzuek, adibidez, totemismoaren alderdi ezberdinak, Antzinako gaurkotua eta kutsu arkaikodun sinbolismoa landu zituzten, hurrenez hurren. Beste batzuk, hala nola Breton, Ernst, André Masson eta Matta, Europa atzean utzi, eta New Yorkera joan ziren bizitzera. Bertan, surrealismoak AEBn izan zuen eraginaren lekuko izan ziren Peggy Guggenheimen Art of This Century galerian. Bigarren Mundu Gerra amaituta, Parisen presentzia handia izaten jarraitu zuen surrealismoak, eta korrante hartako kideak belaunaldi berriekin nahastu ziren hirian. 1961ean ateak ireki zituenetik, Parisko Musée d'Art Modernek mugimendu historiko horren bilakaera islatu du bere bildumetan.

DIDAKTIKA. *Artea eta teknika, bizitza modernoa*

Erakusketako eremu didaktikoak MAMen jatorriari eta abangoardien garaiko Parisko artisten arteko loturei buruzko informazioa jasotzen du, eta MAMen bildumako obra enblematiko bat nabarmentzen du: Raoul Dufyren *Elektrizitatea izeneko maitagarria* (*La Fée Électricité*, 1937). Obra horrek alegoriaz jositako istorio mitologiko bat irudikatzen du, elektrizitatearen inguruan eraikia, haren aplikazioak funtsezkoak izan baitziren Parisko bizitza eta artea modernizatzeke.

Erakusketaren inguruko jarduerak

Aurkezpen-hitzaldia (otsailak 9)

Erakusketaren komisarioek (Guggenheim Bilbao Museoko Geaninne Gutiérrez-Guimaráes -online- eta Parisko Musée d'Art Moderneko Hélène Leroy) erakusketari buruzko hitzaldia eskainiko dute.

Hausnarketa partekatua*

Aurrez aurreko bisitaldian, Guggenheim Bilbao Museoko profesionalek erakusketako edukien inguruko ikuspegi desberdinak eskaintzen dituzte:

- Arte-arduradunaren ikuspegia (otsailak 16): Lucía Agirrek, Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduradunak, erakusketako obra nagusiak erakutsiko dizkigu.
- Funtsezko kontzeptuak (otsailak 23): Luz Magureguik, Museoko Hezkuntza eta Interpretazioko koordinatzaileak, obren alderdi didaktikoei buruz hitz egingo du aretoetara bertaratzen direnekin.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

María Blanchard proiektzioa: 26. Rue du Départ, Érase una vez en París (apirilak 29)

Gloria Crespo Maclennanek ekoitzia eta zuzendua, dokumentalak 1881ean Santanderren jaiotako María Blanchard artista eta kubismoaren aitzindariaren berri ematen digu. Haren erretratu ikusgarriak 1920ko hamarkadako Pariseko biztanleen katalogo fidagarria dira. Blanchard bera ere bertan bizi izan zen urte batzuetan eta Parisko Eskola deiturikoan parte hartu zuen.

Séance Creative Accessoires et mode branchés. La redécouverte du béret français (12 mai)

Certaines œuvres dans l'exposition nous serviront comme point de départ pour profiter d'une activité de « design » et mode durable, à partir de la réinterprétation de l'icône de la mode française, le béret. Atelier pour des adultes guidé par Laura del Pozo.

Katalogoa

Erakusketaren katalogoak XX. mendeko lehenengo hamarkadetan fauvismoaren, surrealismoaren eta Parisko Eskolaren eskutik Frantziako hiriburuan gertatu zen estilo-eklosio bizia aztertzen du. Katalogoaren sarrerako testuak erakusketaren komisarioek idatzi dituzte, eta argitalpenak garai hartako korrante eta mugimendu berriak aztertzen ditu MAMen bildumako aparteko adibideak erabilita. Adibide horiek artearen historiako arau asko urratu zituzten, eta gerora Europan eta AEBn gailendu ziren bilakaera estetikoak iragarri zituzten.

Azaleko irudia

Maria BLANCHARD

Emakume espainiarra (L'Espagnole), ca. 1910–1913

Olio-pintura ohol gainean

54 × 50 cm

Inb. : AMVP 393

© Paris Musées / Musée d'Art Moderne de Paris

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsak erabiltzeko irudiak

Fauvismotik surrealismora: Parisko Musée d'Art Moderneko maisulanak

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsa-irudien online zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratuz gero, erakusketen eta eraikinaren bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatu ahal izango dituzu. Oraindik konturik ez baduzu, erregistratu eta deskargatu behar duzun materiala.

Dagoeneko erabiltzailea bazara, adierazi erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta sartu zuzenean irudiak deskargatzeko orrian.

- *Fauvismotik surrealismora: Parisko Musée d'Art Moderneko maisulanak* erakusketaren publizitatea egiteko soilik erabiliko dira irudi horiek. Erakusketa 2022ko otsailaren 11tik maiatzaren 22ra egongo da zabalik Guggenheim Bilbao Museoa.
- Osorik agertu behar dira, moztu gabe, ezer gainjarri gabe eta manipulatatu gabe. Erreproduzioekin batera, artistaren izena, obraren izena eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua adierazi behar dira.
- Online argitaratutako irudiak segurtasun-neurri elektroniko egokien bidez babestu behar dira.
- Irudiek gehienez 1.000 pixeleko bereizmena izango dute alderik luzeenean. Online argitalpeneko fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin da izan deskargagarria.
- Irudiak ezin zaizkie transferitu hirugarrenei edo datu-baseei.
- Irudiak azalean erabiliz gero, baliteke zerbait ordaindu behar izatea, eta obraren copyrightaren jabe eta titularrak baimena eman beharko du.

Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoko prentsa-eremuarekin, telefonoz (+34 944 359 008) edo posta elektroniko bidez (media@guggenheim-bilbao.eus).

Fauvismoa eta kubismoa

André DERAÏN

Ibaia (La rivière), 1904–1905eko negua

Olio-pintura kartoi gainean

74 × 90 cm

Inb. : AMVP 739

© Paris Musées / Musée d'Art Moderne de Paris

© André Derain, VEGAP, Bilbo, 2022



Emile Othon FRIESZ

Udazkena Honfleurren (Automne à Honfleur), 1906

Olio-pintura mihise gainean

64 × 80 cm

Inb. : AMVP 2579

© Paris Musées / Musée d'Art Moderne de Paris

© Othon Friesz, VEGAP, Bilbo, 2022



André LHOTE

Geldialdi-portua (Escale), 1913

Olio-pintura mihise gainean

210 × 185 cm

Inb. : AMVP 1113

© Paris Musées / Musée d'Art Moderne de Paris

© André Lhote, VEGAP, Bilbo, 2022



Fernand LÉGER

Gizona piparekin (L'homme à la pipe), 1920


Olio-pintura mihise gainean

91 × 65 cm

Inb. : AMVP 1118

© Paris Musées / Musée d'Art Moderne de Paris

© Fernand Léger, VEGAP, Bilbo, 2022



Georges BRAQUE (1882-1963)

Natura hila sonatarekin (Nature morte à la sonate), 1921

Olio-pintura mihise gainean

35,5 × 65 cm

Inb. : AMVP 1684

© Paris Musées / Musée d'Art Moderne de Paris

© Georges Braque, VEGAP, Bilbo, 2022



Natalia GONTCHAROVA

Bi emakume espainiar (Deux femmes espagnoles), 1920–1924

Olio-pintura mihise gainean, bost paneletik hirugarrena

237 × 76 cm

Inb. : AMVP 1195

© Paris Musées / Musée d'Art Moderne de Paris

© Natalia Gontcharova, VEGAP, Bilbo, 2022



Paris elkargune

Maria BLANCHARD

Emakume espainiarra (L'Espagnole), ca. 1910–1913

Taula gaineko olio-pintura

54 × 50 cm

Inb. : AMVP 393

© Paris Musées / Musée d'Art Moderne de Paris



Amedeo MODIGLIANI

Begi urdineko emakumea (Femme aux yeux bleus), ca. 1918

Olio-pintura mihise gainean

81 × 54 cm

Inb. : AMVP 1681

© Paris Musées / Musée d'Art Moderne de Paris



Suzanne VALADON (Marie-Clémentine VALADON)

Biluzia (Nu), 1925

Olio-pintura mihise gainean

65 × 54 cm

Inb. : AMVP 1057

© Paris Musées / Musée d'Art Moderne de Paris



Henri MATISSE

Odaliska besaulkian (Odalisque au fauteuil), 1928

Olio-pintura mihise gainean

60 × 73 cm

Inb. : AMVP 973

© Paris Musées / Musée d'Art Moderne de Paris

© Succession H. Matisse / VEGAP / 2022



Chana ORLOFF

Parisko neskatila (Fillette de Paris), 1928

Harria

125 × 42 × 30 cm

Inb. : AMS 271

© Paris Musées / Musée d'Art Moderne de Paris

© Chana Orloff, VEGAP, Bilbo, 2022



Surrealismoaren bilakaerak

Giorgio DE CHIRICO

Malenkonía hermetikoa (Mélancolie hermétique), 1919

Olio-pintura mihise gainean

62 × 49,5 cm

Inb. : AMVP 1888

© Paris Musées / Musée d'Art Moderne de Paris

© Giorgio De Chirico, VEGAP, Bilbo, 2022



Francis PICABIA (Francis MARTINEZ DE PICABIA)

Optofonoa II (Optophone II), 1922/1925

Olio-pintura eta Ripolin pintura mihise gainean

116 × 88,5 cm

AMVP 2442

© Paris Musées / Musée d'Art Moderne de Paris

© Francis Picabia, VEGAP, Bilbo, 2022



Claude CAHUN (Lucy SCHWOB)

Autorretratua (Autoportrait), 1929

Zilar-gelatinazko kopia

13,8 × 8,6 cm

Inb. : AMVP 2957

© Paris Musées / Musée d'Art Moderne de Paris

© Claude Cahun (Lucy Schwob)



Victor BRAUNER

Perrel kaleko 2. bis zenbakian elkartuta (La rencontre du 2 bis rue Perrel), 1946

Olio-pintura mihise gainean

85 × 105 cm

Inb. : AMVP 2189

© Paris Musées / Musée d'Art Moderne de Paris

© Victor Brauner, VEGAP, Bilbo, 2022

